

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

MAILLOPE

274

2019ko azaroa

TOKIKOM

natar
PRES

MENDIAN,
GURPIL GAINEAN

EUSKALTZAINDIAREN ZUZENDARITZAREN ADIERAZPENA, NAFARROAKO HERRITARRAREN HIZKUNTZA ESKUBIDEEN BERMEAZ

Orain dela ehun urte, besteren artean, Nafarroako Foru Diputazioaren babespean sortu eta 1976az geroztik errege dekretu bidez onartu zen Euskararen Akademia honi esleitu zitzaizkion, berezko xedeen artean, hizkuntza eskubideak zaintzea eta euskararen erabilera sustatzea.

Horrela, Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan, euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuari egindako helegitea ebatziz, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako 216/2019 epaia dela eta, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak hauxe aditzera eman nahi du:

1. Euskara Nafarroako berezko ondarea da eta, hortaz, nafar guztiei eta bakoitzari dagozkie euskarari buruzko hizkuntza eskubideak.

2. Aipatutako epai horrek, alde batetik, ez du ain-

tzat hartzen bertako hizkuntza den euskara balioes- tea Nafarroako eremu guztietako administrazioetako lanpostuetan. Eta, beste aldetik, ez du ahalbidetzen, normaltasunez, Foru Komunitateko ondare kulturala den euskara, gaztelaniarekin batera, agerraraztea ere idazki, inprimaki, errotulu, zigilu, xafla eta abarretan. Epaia hizkuntza eskubideak herritarrenak direla argi aitortu arren, epai horren erabakiekin nafar guztien hizkuntza eskubideak bermatu eta babestu beharrean, murriztu eta mugatu egiten ditu, eta atzerapauso nabaria ezartzen nafarrei aitortutako hizkuntza eskubideak gauzatzean.

3. Orobat, Euskaltzaindiak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari euskarari dagozkion lege eta arau guztietan berma ditzala hiztun komunitate osoaren eta nafar bakoitzaren hizkuntza eskubideak eta, euskara gaie- tarako erakunde aholku emaile ofiziala den Akademia honetako Zuzendaritzak, adierazpen honen bidez, egi- teko horietan lankidetzat hertsia eskaintzen dio Nafar- roako Gobernuari.

Iruñean, 2019ko urriaren 30ean.

HIRUZUBIDE
Ibilbidea

Azaroak 24 (igandea) – 10:00etan –
Irteera Larraungo Udaletxetik

Argazkia: bkier ur jauzia (Mugiro)

on da re
Mugiroko Kontzejua
Larraungo Udala
Iturraskarri

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

▶ aseguruak@aseguruak.eus
▶ 943 65 22 20
▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL


Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



05 BERTSO BERRIAK

06 ELKARRIZKETA: Lekunberri Bike.

10 MOKOKA

11 KUXKUXEAN: Azaroko zorion agurrak.

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 ERREPORTAJEA: Gorritiko Gaztelua.

20 KULTURA

25 KIROLA

26 EMOZIOEN MUNDUAN

31 KONTU TXIKIAK

• **MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

• **ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

• **ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• **ARGAZKIAK:**

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Maider Agirrebarrena, Larraungo Pilota Elkarteak, Printza, Nafarroako Bertsozale Elkarteak eta Lekunberri Bike.

• **PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• **MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

• **TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

Azaroaren bigarren asteburuan San Martin jaiak ospatuko ditugu Gaintzan eta Aldatzen.

Eskualdeko azken jaiak izaten dira gurean, baina horregatik ez dira inola ere atzean gelditzen. Denok dauzkagu sanmartinetan bizitako oroitzapenak eta bizipenak.

Zein da zurea?

Kontaiguzu labur-labur...

Bidaliezaguzu azaroaren 21a baino lehen mailope@labrit.net e-postaren bitartez edo 638 652 339 zenbakiaren Whatsappera eta parte hartzen duzuen guztien artean zuen otorduak gozatzeko Nabarreko piperren zozketan sartuko zaitugu.



M. Angeles Urrizalki

iragarkiak, berriak, eskelak...

Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala

**948513056
699179437**

Atabal
okindugia

Era askotako ogiak eta gozoak

Etxez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldaturako platerak.

Ettxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.

Antigua Kalea N°7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com



AURREIKUSPENAK EZ DIRA BETE!

Joan den hilean egin zen Tuteran 2019ko Nafarroa Oinez Jaialdia. Eguraldiak ez zuen lagundu ordea eta antolatzaileen aurreikuspenak ez ziren guztiz bete. Horregatik oraindik zure aletxoak jar dezakezu, nahi duzun ekarpen ekonomikoarekin Laborak Kutxan, Rural Kutxan nahiz Caixabanken ireki dituzten kontuetan.



OGASUN IZAPIDEAK

Nekezak izaten dira ogasunarekin egin beharreko tramiteak. Cedernak antolatuta, azaroaren 18an (10:00-12:30), izapide horiek online egiteko eta ordainagiriak diseinatzen ikasteko ikastaroa eskainiko du Plazaola Geltokian.



KONPOSTAJEA SUSTATUZ

Oso balorazio positiboa egin du Larraungo Udalak joan den hilean energia berriztagarriei buruz egindako hitzaldiari dagokionez. Azaroaren 22an, Arruizko Lizardi Elkartean, arratsaldeko 18:30ean, Kontzejuetan konposta egiteko aurrera eramaten diren ekintzen aurkezpena egingen da.

bertso berriak Mailoperi jarriak: Xabi Sarasa (Atallu)

*Urtetikan urtera
erle gutxiago,
kimiko ta gaitzekin
lurra agorrago.
Kontzientziarik ezean
guztiak akabo
ta gure bizi arnasa
euren menpe dago.*

*Natura bizitzea
ez al da hobea,
bera baita gu danon
egile, jabea.
Ta norberak ez badu
zaintzen bere etxea,
ordaindu beharko degu
eindako kaltea.*

Doinua: Lili bat ikusi dut.

Hurrengoarentzako puntua:

Erreferenduma ta herriaren hitza.

Oinak:

Erabaki, daki, aitzaki, gizaki.



“Inguruak izugarrizko aukera eskaintzen digu mendiko bizikletan ibiltzeko”

Lekunberri Bike taldearen atzean daude Iñigo Garaioa, Iñigo Garcia, Mikel Bergara eta Iñigo Lasarte. Hilabetean behin mendi bizikletekin egiteko irteerak antolatzen hasi dira. Hurrengo, azaroaren 24an izanen da.

Zein helbururekin sortu duzue Lekunberri Bike?

I. Garcia: Lekunberri Bike herri honetan bizi garen batzuek BTTarekiko dugun afiziotik dator. Mendiko bizikleta inguruan sustatu nahi dugulako sortu dugu.

Lekunberri Bike taldea sortu aurretik elkartzeko ohitura ba al zenuten?

I. Garcia: Bai. Iñigo Garaioa izan da beti elkarrekin irteerak egiteko gure atzetik ibili izan dena.

Mikel: Bai, ni ere Garaioak sartu ninduen taldeko Whatsapp taldean.

I. Garcia: 2012. urtean WhatsApp talde bat egin genuen eskualdean mendiko bizikletarekin ibiltzeko afi-

“Haur eta helduek mendiko bizikletaz gozaten has daitezela da helburua”

zioa genuenon artean. Nik behintzat bakarrik baino nahiago izaten dut jendearekin irten bizikletan ibiltzera. Eta horretarako sortu zen talde hura, norbaitek arratsalde edo goiz batean ateratzeko asmoa bazuen gainerakoei abisatu eta bakarrik ez joateko. Eta horren bitartez izaten genuen Garaioak parte hartzen zuen lasterketen berri etab. Taldean geundenon artean ahalik eta gehien elkartzeko saiatzen ginen. Udan batzuetan gauzez San Migelera igotzen ginen...

I. Lasarte: Ni hasieran errepideko bizikletarekin baino ez nintzen ibiltzen, baina talde horretan sartu ninduten eta probatu egin nuen. Garciak pare bat bizikleta utzi zizkidan proba egiteko eta handik urtebetera nire mendiko bizikleta erosi nuen.

Eta noiz sortu zenuten Lekunberri Bike taldea ofizialki?

I. Garcia: Nik pertsonalki, nire alaba jaio zenean taldea utzi egin nuen beste lehentasun batzuk nituelako eta nahiko deskonektaturik egon naiz azken bost urteotan. Baina joan den udaberrian, maiatzean, bizikleta bat erosi nuen eta hauek zirikatzen hasi nintzen berriro ere elkarrekin irteteko. Nik beti sentitu izan dut hemen BTTaren alde zerbait egin behar genuela. Bike park bat egiteko ideiarri bueltan ematen hasi ginen eta Udal berriarekin osaketarekin batera Udalean gure ideiak aurkezteko aprobeztatu genuen. Legegintzaldi berriarekin batera, Kirol Batzordearen lehen bileran izan ginen, eta



Maila ezberdina duten pertsonak parte har dezakete irteeretan. Arg: Labrit

bertaratu ziren beste askok bezala, guk gure ideiak aurkeztu genituen. Bizi garen inguru honek izugarritzko aukerak eskaintzen dizkigu kirol mota hori egiteko, bai guretzat eta baita kanpotik etor daitezkeen turistentzat ere. BTT zaleak garenontzat oso erakargarria da. Errazenetik has-tea erabaki genuen eta hilean behin irteera bat antolatzea.

Eta zeuen burua gidari lanetan aritzeko aurkeztu zenuten...

I. Garcia: Bai. Udaleko Kirol Zinegotzia den Joseba Jokin Ordokik gu lauroi luzatu zigun gidariaren ardura hartzeko proposamena. Eta hilabetero txandaka arituko gara ibilbidea prestatzen.

I. Garaioa: Ez dugu data finkorik. Hilabetero data bat jartzen da, larunbatetan edo igandetan izan liteke. Saiatu behar dugu eskualdeko bestelako kirol ekitaldiekin egun berean elkartu ez dadin. Hilabetero ibilbide ezberdin bat proposatzen dugu, kontuan hartuz maila ezberdinak dituzten pertsonak etorri ahal direla eta hori kontuan izan behar dugu, guretzat erraza dena hasiberri batentzat zaila izan litekeelako.

I. Garcia: Baina helburua, haur eta helduek mendiko bizikletaz gozatzen has daitezela da. Ez ditugu horretan hobekien moldatzen direnak erakarri nahi. Horiek ere ongietorriak dira noski, baina behetik hasi ohi gara denok eta ibiliz gero erraza da pixkanaka hobetzen joatea. Mendiko bizikletan ibiltzea gustuko duen Lekunberriko eta inguruko jendeari dago zuzenduta, bideak ezagutzen ez dituelako edo bakarrik irteera ausartzen ez delako, beste aukera hau eskaintzea eta animatzea.

Orain arte bi irteera egin dituzue...

Mikel: Bai, irailekoa eta urrikoa.



Pilarika jaietan gaztetxoentzako BTT zirkiutua jarri zuten.
Arg: J.A. Garaikoetxea.

Eta zeintzuk izan dira egin dituzuen ibilbideak?

I. Garcia: Lehenengoa oso erraza izan zen. Larraungo hainbat herri-tatik barna egin genuen: Etxarri, Aldatz, Arruitz, Baraibar, Albiasu eta Lekunberri zehar ibili ginen. Ez genekien zenbat pertsona animatuko ote ziren eta zein ibilbide mota egiteko gai izanen ziren. Horregatik zerbait erraza prestatu genuen. Azkenean hamabi azaldu ziren eta oso ongi joan zen. Bigarrengoan hemeretzi elkartu ginen.

I. Lasarte: Gainera bigarren irteeran nahiko maila ona zuten denek...

I. Garaioa: Oso giro ona sortzen da gainera. Ibilbidea egin eta gero zerbait hartzeko elkartzen gara eta gustura.

I. Garcia: Orain arte parte hartu duten gehienak Lekunberri eta Larraungoak dira.

Zein urte artekoak?

I. Garaioa: Hogeita berrogeita bost urte artekoak gutxi gorabehera. Eta emakumezkoak ere etorri izan dira. Lehenengoan bi animatu ziren eta bigarrengoan bakarra. Nahi duen guztiak parte har dezake. Horren arabera egokituko baitira ibilbideak.

“Ibili egin behar da bideak garbi mantentzeko”



Inor ez galtzeko neurriak ere hartzen dituzue...

I. Garcia: Bai ibilbidean zehar bantzen gara, inor galdu edo bakarrik gelditu ez dadin. Eta Wikiloc kontu bat ere ireki dugu. Bertan aurrez prestatu ditugun hainbat ibilbide proposamen dauzkagu, edonork, gidaririk gabe nahi duenean bertatik ibilbideak GPSra deskargatu eta galdu ez dadin. Luzera eta zailtasun ezberdinetako zortzi ibilbide ditugu aukeran. Eta horrez gain, hilabeteroko ibilbideak ere bertara igotzen ditugu eta Facebook kontuan nahiz kalean jartzen ditugun karteletan QR bitartez sar zaitezke hilabete horretako ibilbidea deskargatzeko. Oso mendi itxiak dira eta bertakoa ez bazara ala ez baduzu ongi ezagutzen galtzen erraza izan liteke.

I. Garcia: 25 eta 30 kilometro arteko ibilbideak egitea aurreikusten dugu 300 eta 600 metroko desnibelarekin. Aldapa malkartsuetan ibili nahi ez badugu beti inguru bertsuan ibili beharko dugu. Horregatik interesgarria izanen da pixkanaka parte-hartzaileek euren maila igotzen joatea.

Mikel: Beti izanen da maila ezberdintasun handia parte-hartzaileen artean.

I. Garaioa: Bai, baina horregatik ez da inor atzean bakarrik gelditzen. Bi edo hiru kilometro egin eta berriro elkartzen joaten gara denok.

I. Garcia: Gainera erritmo bizian joan nahi duenak hilabete gainerako egunak dauzka. Egun horretan denok gustura ibiltzen saiatu behar dugu. Jendea parte hartzera animatzen bada eta talde handitzen doan heinean beti izanen dugu aukera bi maila ezberdinetako irteerak antolatzeko.

Mendi itxiegiak?

Mikel: Bai, bizikletan ibiltzeko geroz eta itxiago dago.

I. Garcia: Ibili egin behar da bideak garbi mantentzeko. Guk ere beti tresnaren bat eraman ohi dugu gainean, bidean eroritako enbor edo adarrekin topatuz gero bidea irekitzeko eta tarteka garbiketa lanak ere egiten ditugu. Naturari dagokionez, gu garai bateko bideetatik ibiltzen gara, beraz oso inpaktu txikia egiten dugu.

Bizikleta edo material berezirik behar da irteera horietan parte hartzeko?

I. Garcia: Paseoko bizikleta batekin

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
 Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
 948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
 ARBEONDO HARATEGIA
 Aralar kalea 9
 Lekunberri
 948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
 HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
 948 50 43 31
 Lekunberri

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
 Betelu 31890
 948 513 083
 696 732 290
 aitzberri@hotmail.com

egitea ezinezkoa da, mendiko bizikleta bat behar duzu. Ez du zertan 2.000 euroko bizikleta bat izan. Pneumatikoak, frenoak eta kanbioak ongi dauzkan mendiko bizikleta batekin aski da. Eta kaskoa eta eskularruak. Egin behar ditugun ibilbideak egiteko ez duzu gehiago behar.

I. Garaioa: Denborarekin oso gustura ibiliz gero eta gehiago ibili nahi duenari nik bizikleta on bat erosteko gomendatuko nioke. Aldea handia izaten delako. Baina irteera hauek egiteko ez da beharrezkoa.

Lekunberriko Pilarika Jaietan haurrentzako BTTa antolatu zenuten...

I. Garaioa: Bai, Jai Batzordean proposatu nuen eta oso ongi atera zen. 30 gaztetxo inguruk parte hartu zuten La Vegan jarri genuen zirkuituan. Ni neroni, oso pozik.

I. Garcia: Eta orain Udalarekin elkarlanean ari gara, bestelako aukerak aztertzen. Hainbat ideia dauzkagu: Haur eta helduentzako mendi bizikleta eskola, bike park eremua, ibilbideak markatzea...

Noiz izanen da azaroko irteera?

Mikel: Azaroaren 24an, igandearekin. Goizeko bederatzietan Lekunberriko udaletxe parean gelditu ohi gara irteteko. Hilabete honetako ibilbidea dagoeneko prest dago: Plazaolatik barna kilometro batzuk eginen ditugu eta ondoren errepide-ara atera eta Azpirotz aldera joanen gara, handik Gorritira eta Guratz

aldera igoko gara, ondoren Uitziko gainera ateratzeko. Handik Santa Engraziara joanen gara eta berriro ere Plazaolatik Lekunberriera.

I. Garcia: Aurki zintzilikatu dugu ibilbidea eta kartela Lekunberri Biken Wikiloc atarian eta Facebook orrian. Beraz, animatu eta etorri probatzen! Maila norberak jarriko dio bere buruari!

Informazio gehiago:
lekunberribike@yahoo.com



Ibilbidea aukeratzeko orduan parte-hartzaileen ezaugarriak hartzen dira kontuan. Arg: Lekunberri Bike.

Antigüedades Gastón

ZURGINTZA OROKORRA, 948 302 916 - 615 850 174
 ALTZARI RUSTIKOETAN ETA info@antiguedadesgaston.com
 ZAHARBERRITZETAN BEREZITUA. www.antiguedadesgaston.com

- ✓ Lan mota guztiak egiten ditugu zurarekin, batez ere haritz zaharrekirin.
- ✓ Ekarriguzu zure altzari edo dekorazio ideia eta zure neurria egindako aurrekontua prestatuko dizugu, konpromisorik gabe.
- ✓ Zaharberritze ikastaroak ere eskaintzen ditugu.

Gipuzkoa errepidea, 11. km.
 Gilledi industrialdea, 1 (Gasolindegiaaren alboan)
 31892 Sarasa.



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE 

ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

 panaderia okindegia

GALBURU eco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Aldezaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

Gizatasuna galtzen



●● Pello Azpirotz

Hepa Andrea!!! Zer moduz? Azaroan sartu gara urri bero baten ondoren eta ez, ez naiz eguraldiari buruz ari. Azken hilabete honetan giroa bero-bero egon da munduko txoko askotan (seguruenik hau irakurtzen ari zareten momentuan gatazka horietako batzuk ez dira bukatu): Ekuadorren, Txilen, Katalunian, Libanon, Haitin, etab.

Hilabete mugitua izan da munduko txoko askotan arrazoi desberdinengatik, baina hauetatik guztietatik ondorio garbi bat atera daitekeela uste dut: Gure eskubideak defendatzeko eta aldaketak gertatzeko ezinbestekoa da kalera ateratzea. Adibide garbienetako bat Ekuadorren gertaturikoa dela iruditzen zait. Indar erakustaldi bat eman du Ekuadorreko herriak. Oso denbora gutxian gobernuak ezarritako dekretua bertan behera uztera behartu dute. Ezin ahaztu Ekuadorreko gobernuaren errepresioa oso gogorra izan dela: zauritu eta atxilotu asko, hildakoak, etab.

Katalunian, "proces"-aren sententziak itzalita zegoela zirudien jende bat berriro ere aktibarazi du. Jendetza mugitu da eta esango nuke neurri handi batean alderdi politiko "independentisten" gaineratik pasa dela Kataluniako herria (Urriaren 1aren ondoren gertatu ez zen bezala). Espero zitekeen bezala Espainiako Estatuaren erantzuna indarkeria erabiltzea izan da (Espainiako polizia eta mossoak). Horren aurrean, askok kolpeak jasotzeaz nazkatutik, autodefentsaren hautua egin dute modu desberdinetan. Kartelatuak eta zaurituak (begiak galdu, testikulu zatia, etab.) izan dira herritar ugari. Hala eta guztiz ere, nabarmenduko nuke gazteek lehen leerroan jarriz eman duten aurrerapausoa Katalunian. Hori bai, independentzia lortzeko oraindik bide luzea gelditzen zaie.

Ezin isilik geratu ere Txilen gertatzen ari denarekin. Testu hau idazten ari naizen bitartean etxeratze-agindua ezarri du bertako gobernuak eta dagoeneko 15etik gorakoak dira bertan poliziak eta militarrek hildako manifestariak. Egoera hauek herrialde gehiagotara zabaldu daitezkeelakoan nago. Zuk ze iritzi daukazu gertaera hauen inguruan Andrea?



●● Andrea Etxarri

Aupa, Pello! Ongi, ikasturtean guztiz murgilduta eta ordu aldaketak eman didan ordu hori ere aprobetxatzen, gero lapurtzeko bueltatuko baita.

Bai, giro beroa izan dugu azken asteetan, zuk diozun bezala. Nik esango nuke giroa beroa dela baina ez dituela denak berdin berotzen. Batzuk bidegabekeriaren beroak basamortuko olatu sutuak bezala hartzen ditu. Gertatutakoaz busti eta injustizien aurka borroka egiteko gogoia piztuz. Beste batzuk aldiz, hermetikoki itxitako ontzi batean baleude bezala hotz uzten jarraitzen ditu, "politika ez doa nirekin" lelopean. Baina, bada hirugarren talde bat, arduragabekeriak jokatuz gauzak nahasten doana, arazoaren gakora joan beharrean xehetasunen morboan geratzen dena. Askotan da hirugarren hau izaten da komunikabideetan gehien ageri dena. Ulertzekoa da bakoitzak bere iritzia edo egitekoa izatea, baina nire ustetan hainbeste pertsona ikusiko duen informazio garrantzitsua ezin da azaleko detailez zipriztindu. Arduraz jokatu behar da oinarrizko giza eskubideak eta gizartearen ongizatea jokoan daudenean, hau ez da film bat, eta larria litzateke modu horretan hartzea. Ikusleriari show-a eskaintzen zaio, ikusi besterik ez dago gaur egungo pelikula zein telesailen artean gatazka/perbertsioa VS umorea/gizalegea aldarrikatzen dutenen proportzioa. Hau honela, show-ak gatazka du gustuko eta ez du berau baretzen edo konpontzen lagunduko, hau elikatu besterik ez du egiten. Ezberdintasunak handituz. Mina areagotuz. Gizatasuna galduaraziz.

Berekoikeria eta espektakuluaren mesedetan gizatasuna galtzeko arriskuan egon gaitezke.

Dena den, eskubideak eta gizatasuna defendatzen dugun horiei guztiei esker nire esperantza momentu lazter luza ez irautea da. Esaera zaharrak dioen bezala: "Ez dago bukaerarik gabeko momentu txarrik. Azaroa hotz, negua motz. Azaroa bero, negua gero".





Ane Buldain Garzaron

Urriaren 10ean 12 urte.
Zorionak politte eta zure urtebetetze egunean oso ongi pasa izana espero dugu.
Muxu haundi bat etxekoan partetik.

Egoi Apezetxea Gabari

Azaroaren 21ean, 5 urte.

Zorionak polita!!!

Oso ongi pasa zure urtebetetze egunean!

Musu erraldoi bat etxekoan partez.



Saioa Intxaurrenond Garcia

Azaroak 13, 22 urte.

Zorionak Saioa!! Oso ongi pasa zure egunean eta ederki ospatu, merezi duzu eta. Muxu handi bat familia guztiaren partez!



Urko Tolosa Iraola

Azaroak 10, 7 urte.

Zorionak bihotza!!! Gozatu eta

ondo pasa zure urtebetetze eguna.

Muxu erraldoi bat, June, aitatxo eta amatxoren partez.



Laida Garmendia Huarte

Azaroaren 8an 9 urte.

Egun on ona pasa eta bikain ospatu!!!!

Familiaren partez.



Luka Soria Iriarte

Azaroaren 23an,

urtetxea beteko du gure Lukak.

Zorionak pottoki! Ongi pasa zure

lehenengo urtebetetzean.

Asko maite zaitugu.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Lagunasesoria S.L.

**Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



OKM

ABOKATUAK

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

BERRERABILPENA ETA MURRIZKETA HELBURU

Mendialdea Mankomunitateak eta Araxes Garaiko Mankomunitateak elkarlanean hainbat ikastaro antolatatu dituzte eskualdean, murrizketa eta berrerabilpena sustatzeko helburuarekin.

Urrian erosketa ohiturak aldatzeko tailerra egin zen Araizko udaletxean eta Uitziko Merkualde elkartearen. Eta azaroaren 15ean berriz, arratsaldeko 18:00etan Araizko Udal Liburutegian Berrerabiltze, berreskuratze nahiz zaharberritze tailer irekia eskainiko da. Eta hurrengo egunean, azaroaren 16an, ikastaro bera egingen dute Etxarriko dantzalekuan.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK EZ!

Datorren azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna da. Larraun Ibarreko Berdintasun Mahaiak deituta hainbat ekitaldi egingen dira aste horretan zehar.

Azaroaren 16an, goizeko 10:00etan, Lekunberriko udaletxean, Ahalduntze Eskola egingen da indarkeriaren forma guztiak ikasi eta inoiz ez jasateko.

Azaroaren 22an berriz, arratsaldeko 19:00etan, Lekunberriko udaletxean, Katiuska Tus Katiuskas! antzezlan eskainiko da.

Eta azaroaren 25ean, 19:30ean Larraungo udal-etxetik aterata indarkeriaren aurkako manifestazioa egingen da herrian zehar.

LEHEN- SOROSPENAK ETA DESFIBRILADOREA ERABILTZEN IKASTEKO IKASTAROKAK ESKAINIKO DIRA LEKUNBERRIN

Datorren azaroaren 12an, arratsaldeko 16:00etan Lekunberriko Eguneko Zentroan lehen sorospenak egiten eta desfibriladorea erabiltzen ikaste saioa izanen da. Aurki data berriak kaleratuko dira. Lekunberriko Udalak ikastaroa egitera animatzen ditu herritarrak, gutxien espero duzunean edonori bitzita salba diezaiokezulako. Beraz, animatu eta eman izena 660 220 075 edo 609 469 901 telefono zenbakietan.

ESKATU ZURE SASKIA AZAROAREN 20A BAINO LEHEN



Urrian hasi zen aurtengo Errigora kanpaina eta azaroaren 20an amaituko da saskiak eskatzeko epea. Eskaerak Larraungo euskaltegiaren bitartez nahiz ekimenaren web-orrian egin daitezke.

Aurtengoan hiru saski eskaintzen dira. Saski beltza, orain arteko berdintsua (50 euro) izango da. Berdea (60 euro) produktu ekologikoz osatutakoa. Eta saski zuria (70euro) bereziagoa izanen da, gabonetako saski baten tankerakoa.

“Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka” kanpainaren zazpigarren edizioa da aurtengoa. Orain arte, ia 80.000 saski eraman dira Nafarroa hegoaldeko baratzetik Euskal Herriko txoko guztietako sukaldeetara eta ia 1.000.000€ bideratu dira Euskal Herriko txoko guztietatik Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara. Dena ekoizle, boluntario eta kontsumitzaileen arteko elkarlan eta auzolanari esker.

Zenbat eta eskaera gehiago, laguntza handiagoa jasoko dute Nafarroa erdi eta hegoaldeko euskaltzaleek. Ekintza txikiekin helburu handiak!!

Informazio guztia www.errigora.eus atarian dago eskuragarri.

EGOKITUTAKO HIRUZUBIDE IBILBIDEA EGITEKO ELKARTUKO DIRA HERRITARRAK AZAROAREN 24AN

Iturraskarrik Mugirotik pasatzen den Larraun ibaia- ren inguruan garbiketa lanak egin ditu azken hila- beteotan. Eta ondoren Ondare Kultur Elkarteko kideen laguntzarekin eta Mugiroko Kontzejuaren eta Larraungo Udalaren babesarekin hiru zubi ze- harkatzen dituen ibilbide zirkularra egokitu dute, herritarren nahiz kanpotik datozen bisitarien go- zamenerako. Hiruzubide jarri diote izena lau kilo- metro eta 200 metro inguruko ibilbideari. Datorren azaroaren 24an, herritarrei ibilbidea erakusteko irteera antolatu dute. Goizeko 10:00etan irtengo dira Larraungo Udaletxetik.



KOLONEKO MINBIZIAREN PREBENTZIO PROGRAMA

Koloneko minbizia Nafarroan diagnostikatu ohi den tumorerik ohikoena da eta gizonezkoetan minbiziagatik hiltzen diren bigarren kausa da eta emakumezkoetan lehena.

2014. urtetik hona urtero Koloneko Minbiziaren Aurretiazko Prebentzio Programa aurrera eramaten ari dira eskualdean Irurtzungo Oinarrizko Osasun Zerbitzutik, heriotza tasa hori murrizte aldera.

Aurten dagoeneko ekin diote kanpainari eta eskualdeko 50 eta 69 urte arteko gizonezko eta emakumezko guztiak deituta daude proba egitera.

Proba egiteko testak dagoeneko eskuragarri daude honako puntu hauetan:

- Lekunberriko Osasun Zentroan: Astelehenetik asteazkenera (08:15-14:30)
 - Arribeko Osasun Zentroan: Astelehenetan (08:15-10:30)
 - Irurtzungo Osasun Zentroan: Astearte, asteazken eta ostiraletan (08:15-14:30)
- Informazio gehiago: 848 423 498 / www.cancercolon.navarra.es

ETA ZURETZAT ZEIN DA PINTXORIK GOXOENA?

Lekunberriko Udalak Azaroaren 17tik 24ra bitarte izanen den Pintxoaren Astea antolatu du. Aste horretan zehar pintxo bereziak eskainiko dira Lekunberriko tabernetan. Aste horren amaieran jakinen dugu nori dagokion herriko pintxorik goxoenaren saria.



Jolasak ez dauka amaierarik

Beso goxoetan jaso zuten txikia eta emeki eraman etxe xumera. Hazten ikusiko zuen etxera, etxeoengana.

Pixkana handitzen joan zen, lehen urratsak emanez lurra eta haizea ezagutu zituen. Lehen hitzekin sugarra eta indarra. Han eta hemengo baso, mendi eta magaletan neskabila bizitza ezagutzen, maltzurkeria eta haren azpi joko zikinak pixkanaka bizitzen. Bere inguruan, isilpean amets gaiztoa sortzen zen bitartean.

Egunen joan etorriari nola irabazi ikasi zuen lehenengo. Anai-arreba horien guztien artean azkena ez izaten, bizirautean. Gaueko piztiak nola uxatu ondoren, gaiztoak eta haien kontrako borroka. Horrela ikasi zuen neska txikiak itzalekin jolasten, iluntasunean argia sortzen, bere erabakiak eta hitza errespetatzen eta adorea izaten.

Ez zuen haurtzaro erreza izan. Berezia zen, ezberdina. Eta horregatik askotan baztertua, isolatua bizitzen zen. Itxaropen eta ihesaren desiran ezkutatzen zituen herriko haurren iseka eta oihiak. Egunen batean herri hartatik alde egitearen ametsekin betetzen zituen bakardade hutsuneak. Gudari bihotz eta arima borrokalaria sortu ziren beregan, betirako ernatu zirenak, gaur egun darraitenak eta ondorengoan erraietan betirako izango direnak.

Azkar ikasi zuen borroka egiten, azkar behartu zuten ikastera. Begia galdua zuen. Behin anaia zaharrak etxera bidean nahi gabean lumaz zauritu zion begia. Ez zen zauri oso larria, baina ez zen aberatsaren alaba. Huraxe izan zen askoren artean



lehenengotako orbaina. Pirata txikia. Aski ezaguna dugu denok piraten ontzien oiha beltza, pirataren ikurra. Eta bera ez zen pirata baina ausardia gutxiago zeukan pertsona. Eliza azpian sartzen zen, hilotz hotzetan, eta garezurra eskuan, etsaien atzetik egiten zuen lasterka, beldurrik gabe.

Ez zion inork esango nor zen eta zer egin behar zuen. Gonak neska txolinentzat, berak bazekien galtzak estu lotzen.

Emakume indartsu bilakatu zen inor konturatu gabe. Emakume ederra. Ezkontzeko ordua iritsi zenean, herriko aberatsenaren emazte izatea inposatu nahi izan zioten. Baina inork ez zion esango arima hari no-rekin izan. Etxetik ihes egin behar izan zuen, gauak pasa zituen ezkutatuta. Baina ez zuen aukera handirik, ez nora joanik ez nola joatekorik eta etxera itzuli behar izan zuen berriro. Gauza ez zen hobetu, etorkizuna, askatasun urria erauzi nahi zioten.

Iluntasun eta tristura handiengan murgildurik bizi zen. Esklabu. Itozten saiatu ziren soineko zuriaren lokarri estu haiekin. Halakoa zen sumina, ito beharrean bere buruaz beste egitea ere izan zuela buruan. Baina zorrotz zituen hitza eta ekintza lotura eta korapiloak apurtzeko. Eta inposatzailea inposatu bilakatu zuen.

Ehiztari amorratu bihurtu zen, zorion eta askatasun ehiztari.

Ez zuen inoiz pentsatu maiteminduko zenik, baina maitasunak beste bideak sortzen ditu, bide askeak. Eta kasu honetan moto batean agertu zen multiko gazte hark ekarri zion askatasuna.

-Aizu "buruhandi"...

Askatasunari hasiera eman zioten lehen hitzak. Bihotz erraldoiko gizon handi harekin sortutako bizitza izango zen zoriona, arnasa, bizia.

Baina jolasak ez dauka amaierarik, ezin da bukatu galtzaile edo garailerik ez bada. Eta tarteko lorpenak horixe besterik ez dira, lorpenak, ilusio soilez beteak.



cuze

Leire Aranburu

Bizitzaren ibaiak

Ibaiek bizitza ekartzen dute zeharkatzen dituzten lurraldetara. Urik gabe, ibairik gabe, bizitza ez da posible. Ibaien ondoan garatu dira beti giza taldeak eta hauei esker gizakia aurrera atera da, ura eta jana bertatik edo bere uren laguntzarekin lortu baitira. Horregatik, ibai batzuk sakratuak bihurtu izan dira. Nilo eta Ganges ibai ezagunak dauzkagu adibide gisa, besteak beste. Azken honetan Indiako Varanasi edo Benares hiria dago, heriotzaren hiri sakratua. Bertara hurbiltzen dira hindu asko eta asko hiltzera eta hildakoei agur egitera. Behin pertsona hildakoan, ibaiaren ertzeko leku sakratuan hilotza erre eta errautsak errekarra jaurtitzen dira. Benareseko tokirik ezagunena Manikarnika izeneko mailadia da, bertan Shivak negar egin omen zuen. Hantxe, mailak jaitsi eta uretan sartzen dira erromesak purifikatzeko ondoan hildakoak erre eta agur esaten zaien bitartean. Gangesen bezala beste toki askotan ohitura bera segitzen dute hinduek, hauek hildakoak erre eta errautsak ibaietan bera bidaltzen baitituzte. Hortaz, ibaiak bizitza ekartzen duten bezalaxe, heriotzarako tokiak badira ere.

Geure bizitzak ere, antzekoak dira, Manriquek idatzi zuen bezala. Munduan kontaezinak dira dauden ibaiak, txiki eta handi, eta haiek bezalaxe gara pertsonak. Ez daude inon bi ibai berdin eta, era berean, ez dira inoiz egon eta ez dira inoiz egongo bi pertsona berdin, bi pertsona bizitza berdinarekin. Etxetik inoiz aldendu ez diren bi senideren bizipena antze-



koa izan daiteke baina berdina inola ere ez. Horregatik pertsona guztiak desberdinak gara, bereziak, errepikaezinak. Horretan datza bizitzaren aberastasuna. Pertsona bakoitza jaiotzatik heriotzara, bide batean zehar mugitzen da. Ikasitakoek, sinemenek, beldurrek, minek eta maitasunak, besteak beste, irudikatzen dute bakoitzaren bizitzaren ibilbidea.

Geure bizitzaren ibaia abiatzen denean, inork ezin du esan nondik pasatuko den, zenbat luzatuko den edo zein itsasotan amaituko den. Baina, eta hau seguru da, nonbait eta noizbait itsasoratuko da gure bizitzaren ibaia, alegia, hil egingo gara. Bizitzak aldamenen hori dauka,

heriotza. Eta urrun ikusten badugu ere, heriotza beti iristen da. Heriotza beharrezkoa da, zentzua ematen dio bizitzari, lekua egiten dio bizitza berriari. Edozein izanda geure sinemenak, hil egingo gara.

Sineste batzuen arabera, hil ondoren beste bizitza bat dago, bakarra eta amaiezina. Esaterako, judeokristauon arabera bizitza honetan egiten dugunaren arabera, hurrengoa halakoa izanen da. Al-diz, budistek, jainistek eta hinduek, hainbat bizitza bizi ditzakegula aurreikusten dute, bizitza bakoitzean geure arima purifikatzen joateko. Beste hainbaten ustetan, hil ondoren ez dago ezer, hor bukatzen da guztia. Niri zaila egiten zait azken hau sinestea, agian ezer hutsa bihurtzearen beldurreratik, agian ez diodalako zentzurik honi aurkitzen. Nire ustez, gorputza baino askoz gehiago gara. Hiltzean, zalantzarik gabe, gorputza desagertuko da. Baina, materia baino gehiago gara. Energia gara, izpiritua gara. Berdin dit nola esaten diogun azken honi, arima edo Jainkoa. Izenak ez dit axola baina nire bizitzan bizitako hainbat eta hainbat esperientziak esaten didate dena ez dela bukatzen pertsona bat hiltzen denean, heriotza beste norabait pasatzeko atea baino ez baita. Ibaia bera ere ez da itsasoan bukatzen, laster hodei bihurtu eta euri bezala ibai berriei jaiotza ematen die.



“Gorritiko gaztelua da Erdi Arotik gelditzen zaigun elementu bakarrenetakoa”

Joan den urriaren 19rako zegoen aurreikusirik Gorritiko Santa Barbara ermitaren ingurua auzolanean garbitzea. Aurreikuspen meteorologiko txarreatik bertan behera gelditu zen auzolana, baina aurki eginen du Ondare Kultur Taldeak deialdi berria. Lur azpian aurkitzen den gazteluaren hondarrak berreskuratzeko lehen pausoa izanen da.



Oso aspaldikoak dira Gorritiko gazteluaren lehen erreferentzia historikoak. Gorritiarrek ordea ez dute gogoan Santa Barbara ermita kokatzen den leku berean, gaztelua egon zenaren konturik entzun izana.

Joxe Angel Bernal gorritiarrak esaterako, gogoan du euririk egiten ez zuenean, errogatibak egitera igotzen zirela umetan eta Azpirozko jaietan erromeria egiten omen zuten. Ama Birjina gurtzeko ermita bai, baina gaztelua egon izanaren zantzurik ez zion inork hartzen edo ez ziren behintzat halakorik inori esatera auzartzen. Harriak bai, hori bai, inguru horretan harriak ugari. Herriko gainerako zelaietan ez bezala, han goiko itxitura asko harriz eginak dira. Ermitaren azpiko zelaiaren izenak ere zer pentsatua ematen du, Hezur-mendi.

Joxe Angel: “Orain hasten gara ohartzen gauza horien zentzuaz. Guk umetan ez genuen inoiz gazteluaren konturik entzun. Garai bateko aitona-amonek Hezur-mendiaz hitz egiten zutenean karlisten garaiaz hitz egiten zuten, han kanpamenduren bat izan zela eta... Kutsu misteriotsu edo iluna izan du beti leku horrek. Nik Carlos Claveriaren liburu bat erosi nuenean izan nuen lehen aldiz Gorritiko gazteluaren berri. Ondoren, inguru horretako eskritura batzuk azaldu ziren eta han Gaztelu-aldapa izena azaltzen zen. Baina orain gutxi arte imajinatu ere ez genuen egiten”.

Gorritiarren ermitatzat hartzen dugun eremu horretan muga egiten dute Gorriti eta Atalluko Kontzejuek.

Erdi-erdian baitago muga. 1512ko Nafarroako Konkistaren 500. urteurrena dela eta, Orreaga Fundazioaren ekimenez, 2012. urtean puri-purian egon zen Santa Barbarara antolatu ohi den martxa. 2015ean Ondare Kultur Taldea sortzearekin batera martxa horren antolaketaren ardura Ondareko kideek hartu zuten. Martxa horiek izan dira Larraunen gaztelua balioan jartzeko egin izan diren keinu bakarrenetakoak.

Urte asko daramatza Iñaki Sagredok gazteluei buruzko ikerketak egiten. Nafarroako Mendialdeko merindadeko zenbait gaztelu berreskuratzea ere lortu du, Iruritako gaztelua (Burundan) edo Aitzita (Irurtzungo Bi Ahizpetan) adibidez. Pixkanaka garai hartatik gelditzen zaizkigun gazteluei merezi duten balio ematea lortzen ari da lekuan lekuko herritar eta taldeen laguntzaz. Baina beti izan du buruan Gorritikoa.

2004an hainbat indusketa arkeologiko egin ziren Tolosako Luis María Zavalaren ekimenez. Baina ez da inoiz bertan dagoena jendarteratu. Sagredok helburu horrekin, orain urtebete proiektu bat aurkeztu zion Nafarroako Gobernuari, bertan garbiketa eta zundaketa lanak egiteko baimena eskatuz. Proiektu hori atzera bota zioten, nahiz eta garbiketa lanak egiteko baimena lortu zuen gerora. Aurtengo abenduan bigarren saiakera bat egingen du, proiektu berria aurkeztuz.

Bien bitartean, Larraunen eta batez ere Gorritin garbiketa lanekin



Gorritiko gaztelura egindako 2014ko martxa. Arg: J.J. Zubeldia.



Santa Barbarako ermita gazteluaren hondarren gainean eraikia. Arg: J.A. Garaikoetxea.

hasteko gogoz dago jendea. Joxe Angel: *"Jende asko herrian ilusioarekin dagoela uste dut, askorentzako gauza berria da. Jakin-mina sortzen du, sarrera nondik ote zuen, harresiak, bidea nolakoa ote zen... Ez gara inoiz oso kontziente izan hor zer dagoen. Eta niri harritu egiten nau herrian inork ezer ez jakitea!"*

Garbiñe Bernal: *"Ahaztuarazi egin zigutelako! Oraindik ez dugu imajinatzen, zaila egiten zaigu hor gaztelu bat irudikatzea, behin azaleratzen joaten denean, orduan uste dut hasiko gara sinisten benetan, eta orduan hasiko gara izan zuen garrantzia ematen."*

Iñaki, zergatik da horren garrantzitsua gazteluaren hondarrak azaleratzea?

Ikertzea ongi dago, baina jendeak ez badaki, non dauden ateak, non dorre nagusia eta nolakoak ziren harresiak... uste dut denbora galtzea dela.

Ikertzea ongi dago, baina jendeari erakutsi egin behar zaio. Balioan jartzeko beharrezkoa da hori. Nafarroako Gobernuak Kultur Zuzendariarekin asko eztabaidatu eta gero, azkenean aurten garbiketa lanak egiteko baimena lortu dugu. Ezin dugu harri bakar bat ere ukitu, oraingoz bertako landaretza garbitu baino ez dugu egingen. Hori lehenbailehen egitea komeni zaigu, abenduaren amaieran proiektu berria aurkeztuko dugulako, indusketa lanak egiten utz diezaguten. Hori izango da orain gure borroka.

Historikoki zeresan handiko gaztelua izan zen Gorritikoa...

Beotibarko Guda, Gaztelaren mende zeuden gipuzkoarren eta Nafarroako Erresumaren arteko guda izan zen hura, Gorritiko gazteluaren ibilbidean erreferentziatzeko puntua da. 1321n nafar tropek, Gaztelako kontrol-



Iñaki Sagredok urteak daramatza Nafarroako Mendialdeko gazteluen hondarrak berreskuratzen eta ikertzen. Arg: Labrit.

pean zegoen gaztelua berreskuratu zutelako. Eta ondoren, nafarrak Tolosa aldera joan ziren erasotzera, baina garaituak izan ziren. Interesgarria da data hori erreferentziatzat hartzea, eta Gorritiko gazteluari merezi duen garrantzia emateaz gainera, hainbat ekitaldi egitea Larraunen eta Tolosan, gertaera komun hori gogora ekarriz eta, jada beharrezkoa ez den arren, adiskidetze historiko gisa.

Zer dakigu bertan gaztelua defendatzen ibili ziren pertsoneri buruz?

Pentsa zeinen garrantzitsua izan zen, lehenengo emakumezko alkaidea Gorritiko gaztelukoa izan zela. Teresa De Zarauz zuen izena. Gaztelua defendatu zuen Gaztelakoen aurka. Gazteluko arduradun nagusia izan zen. Hori ez da ohikoa. Ez duzu inon irakurriko Erdi Aroan emakumezko izan zenik gaztelu bat defendatzen. Bada, Gorritin gertatu egin zen!

Informazio asko dago Gorritiko gazteluari buruz, ezta?

Bai. Dokumentu asko daude eta informazio oso zehatzekin. Bertan lan egin zuten izenekin, zein berritze lan egin ziren, egunerokoan gertatzen ziren ez-ohiko gertaerak, elikagaien erosketak, armen erosketak... Dena dokumentatzen zuten.

Nolakoa izan zen gazteluaren amaiera?

Nafarroako Erreinua desarmatu zenean eta defendatzeari utzi zionean (1512an Nafarroa konkistatua izan aurretik), gatazkak egon ziren bando bateko eta besteko nobleen artean eta erreinua barrutik desegiten hasi zen. Gazteluak kontrolatzeari utzi zioten eta eraikin horiek erregearen jabetzakoak izatetik nobleenak izatera pasa ziren. Gorritiko gazteluari buruzko azken pista 1470 inguruko dokumentazioetan galtzen da. Hau da, 1470. urtetik 1512ra bitarte ez dugu inolako informaziorik. Baliteke abandonaturik egotea edo Gaztelakoak egotea bertan lurraldea kontrolatzen, baina ez dugu daturik. Gaztelu askorekin bezala, momenturen batean abandonatu egingo zutela uste dut, nahita suntsitu. Baina ez dakigu.

Nahiko gaztelu txikia zen...

60 metro luze eta 20 metro inguruko zabalera izanen zuen. Hamabost arma-gizon sartuko ziren, baliteke beheko zelaia hartuz gero gehiago ere izatea.

Lekunberriko malkorrean ere bazen defentsarako eraikin bat...

Bai bertan ikerketa lana egitea ere falta da. Lekunberri, herriaren sarreran, dorre bat zegoen, gaztelua deitzen ziotena. Erdi Aroko dorre esanguratsua zen. Hirurogeita hamar arma-gizon egoten ziren eta 1460-1470 arteko gudan denak hil zituzten. Dorrea suntsitu zuten, bertakoak erailez. Hori dokumentaturik dago. Goialdean zegoen gotorlekua ordea nire ustez askoz ere zaharragoa zen. Agian tronpatu eginen naiz, baina erromatarren garaikoa izan zela esatera ausartuko nintzateke. Lekunberri mugarri erromatar garrantzitsu bat aurkitu zuten. Horietako sei edo zazpi baino ez daude estatu osoan, eta horietako bat Lekunberri orain dela urte batzuk aurkitutakoa da. Horregatik hor defentsarako egon zitekeen eraikina garai hartakoa izan daitekeela uste dut. Baina hor ere

beharrezkoa izanen da ikerketa arkeologikoak egitea. Agian ez dago ezer ere ez, ez dakigu. Aldatzen ere gotorlekua izan zen eliza dago. Beraz, elementu asko daude hemen inguruan balioan jarri beharrekoak.

Gorritiko gaztelua azaleratzen hasteko baimena lortuz gero, zeintzuk izanen dira jarraitu beharreko pausoak?

Zatika lan egin beharko dugu eta kontu handiz. Ez dakigu harri bat altxatzerakoan zer aurkituko dugun. Harresiaren osaketak zein garai-koa den esan diezaguke. Ager daitезkeen zeramikazko tresnak nahiz bestelako elementu guztiak identifikatu beharko dira, txostena egin... Gazteluaren perimetroan egon daitезkeen harresia, ateak eta zenbait elementu azaleratzeko lau edo bost urte beharko genituzke. Ermita ez da ukituko, dagoen lekuan jarraituko dugu. Inguruan dagoen azalararazi baino ez dugu egin nahi. Jendeak ikus ditzala, paretak, atea eta elementu nagusiak. Eta gazteluaren historia azalduko duten panel batzuen bitartez bertako historia eza-gutu dezala.

Nahi duen oro dago aurki eginen duzuen auzolanera gonbidatuta...

Bai, denok ezinen dute garbiketa lanetan aritu, agian gehiegi izanen garelako. Baina ni egun horretan

bertan egonen naiz nahi beste azalpen ematen. Beraz, jendea Santa Barbarara igotzera animatzen dut, lekua eta bere historia ezagutu dezatela. Denon artean Nafarroako Gobernuak proiektu honekin aurrera egiten utz diezagula lortu behar dugu. Gaztelu txikia da eta posible da. Inguruan zeuden Erdi Aroko elementu gehienak desagertu egin dira, Gorritiko gaztelua gelditzen zaigu eta ezin dugu bere horretan utzi.



Lekunberriko Malkorreen garai batean defentsarako gotorleku bat egon zela uste da. Arg: J.A. Garaikoetxea.

BASERRI HANDIA SALGAI

Ikusi Idealistan:

607 524 980

- Etxarri Larraun.
- Porlanezko bi solairu eta ganbara.
- Toki zoragarrian eta etxaurre egokiarekin.

ETXEA SALGAI

- Etxarri Larraun.
- 2 Etxebizitza bakoitza bere sarrerarekin.
- 2 Familiarentzat egokia.
- Lursaila etxebueltan.

607 524 980

Ikusi Idealistan:

ARALAR



Aritz Ganboa artzaina Madoztik pasada lasterka

Aritz Ganboa Arruazuko artzain bat da, urteko zati handi bat Aralarren ematen duena. Nekazaritza, abeltzaintza eta bertan dugun ingurune naturala balioan jartzeko "Bideak" izeneko dokumental bat ekoizten ari da eta horrekin lotuta erronka bat jarri zion bere buruari. Arruazutik, Izabaraino lasterka joatea ganean Idiazabal gazta bat eramanez eta helmugan Erronkariko gazta batekin trukatzea. Gurasoen jaioterriak dira biak eta herri horien arteko loturaren bidez, landa eremuko bizimoduaren eta hiriko bizimoduaren arteko zubiak eraikitzeke beharra azaleratu nahi du. Urriaren egin zuen erronka hori. Arruazu eta Izaba artean dauden hainbat herri eta eremu zeharkatu zituen tartean. Guztira 170 kilometroko ibilbidea.

Urriaren 26an, goizeko 08:00etan irten zen Arruazutik eta lehenengo geldialdia San Migel Santutegian egin zuen. Handik Madotz aldera jaitsi ziren Imotzetik barna jarraitzeko. Gauean Orbaizetara iritsi zen eta gauez egin zituen Iratin zeharreko kilometroak. Igande goizean lortu zuen Ganboak erronka betetzea. Goizeko hamaiketan iritsi zen bere Idiazabal gaztarekin Izabara. Bide osoan zehar tokian tokiko herritarren laguntza izan zuen.

"Bideak" dokumentala 2020an kaleratuko da. Oraindik finantzaketa kolektiboaren kanpaina irekita dago, beraz, ekarpen ekonomikoa egiteko aukera dago www.bideakdokumentala.eus atarian.

LEKUNBERRI

Txikienak ere musikari

Aralar Udal Musika Eskolak aurtengo ikasturtean ere Musikari Txikiak Tailerra eskainiko du etxeko txikientzat. Unai Artola irakasleak zuzenduko du tailerra. Guztira 4 saio izanen dira azaroaren 22 eta 29an eta abenduaren 13an eta 20an. 2017tik 2019ko apirilera arte jaiotako haur eta euren gurasoei zuzenduta egonen da. Gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazio afektiboa eta ikasleen gaitasun espresiboak, musikalak, intelektualak eta motrizitate landuko dira besteak beste.

Informazio gehiago: info@aralar.org edo goizez 948 504 489 / 672 122 472.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

NAFARROA



Aitor Irastortzak II. Bertsokabi - Eugenio Arraiza Sariketako finalera iristea lortu du

Urriaren lehen asteburuan jokatu zen II. Bertsokabi - Eugenio Arraiza Sariketako lehen kanporaketa Iruñeko Terminal tabernan. Bertan hiru bikote aritu ziren bertsoan, Saioa Alkaiza eta Ainara Iregi, Amaia Elizagoien eta Beñat Astiz eta Aitor Irastortza eta Xabat Illarregi. Saio horretan Irastortzak eta Illarregik eskuratu zituzten puntu gehien eta finalean aritzeko txartela lortu zuten. Bigarren kanporaketatik berriz Ekhiñe Zapiain eta Josu Sanjurjo sailkatu ziren. Bigarren saio hori Iruñeko Zabaldi Elkartasunaren Etxean jokatu zen eta bikote horrekin batera aritu ziren Ekain Alegre eta Iker Gorosterrazu eta Mikel Lasarte eta Sarai Robles. Eta Mendillorri izandako hirugarren kanporaketan Endika Legarra eta Joanes Illarregi, Etxahun Azkarraga eta Patxi Castillo eta Irati Majuelo eta Alazne Untxalo aritu ziren. Emakumezkoen bikoteak lortu zuen finalerako sarbidea. Hain zuzen ere, Irati Majuelo eta Alazne Untxalo izan ziren urriaren 24an Iruñeko Herriko Tabernan jokatu zen finaleko txapelidunak. Aitor Irastortzak ez zuen lortu txapelik baina lan ederra egin zuen aurtengo edizioan. Zorionak!



NAFARROA

Bertsoaroa jaialdiaren baitan zortzi bertso saio eskainiko dira Iruñean

Hilabete honetan zehar bertsoaz gozatzeko aukera izanen dugu Nafarroan Bertsoaroa jaialdiarekin. Hilaren 5ean hasi zen Iruñean Bertsoaroaren 29. edizioa eta azaroaren 26ra bitarte zortzi saio izanen dira Iruñeko areto ezberdinetan: Nafarroako Antzerki Eskolan, Kondestablen, Iturrama eta Sanduzelako Civioxetan eta Gurutze Plazako Institutuan. Gainera, horietako bi saiotan, antzerkia, dantza eta bertsoa uztartuko dituzte.

Azaroak 12, 19:30. Kondestable BERTSOAREN HARRIA. Hitzaldia eta bertsoa. Koldo Izagirre, Aimar Karrika eta Maddalen Arzallus.

Azaroak 13, 17:30. Juslarrocha Civivoxa
BERTSO JASA, BAT-BATEKO JOLASIA. Haurrentzako tailerra. Saioa Alkaiza eta Haritz Mujika.

Azaroak 16, 12:00 eta 18:00. Sanduzelaiko Civivoxa.
URPEKAKARIAK. Haurrentzako bertso antzerkia. Lierni Hernandez eta Eneko Arrate. Gidoia: Ane Labaka eta Miren Amuriza

Azaroak 19, 19:30. Kondestable AUSKALO ZEINEK JARRIAK. Bertso musikatuak. Eñaut Agirre eta Unai Agirre.

Azaroak 21, 19:30. Kondestable GAZTEEN BERTSO SAIOA. Xabat Illarregi, Ekhiñe Zapiain, Irati Alcantarilla, Maialen Akizu, Haritz Mujika eta Ibai Amillategi.

Azaroak 26, 19:30. Nafarroako Antzerki Eskola
BERTSO JAIALDIA. Andoni Egaña, Sustrai Colina, Alaia Martin, Eneko Lazkoz, Maddi Ane Txoperena eta Iker Gorosterrazu.

Berritasun arrakastatsuak 2019ko Pilarika Jaietan

Urrian sartuta egon arren, aurten ere eguraldiak nahiko ongi eutsi zion Lekunberriko Pilarika jaietan. Urriak 9, asteazkenarekin, eman zioten hasiera lekunberriarrek euren festei. Jose Mari Irujok izan zuen txupinazoa botatzeko ohorea. Sei proposamenen artean bere izena izan zen bozkatuen, Udalak antolatutako herri bozketan. Tradizio bihurtu diren hainbat ekitaldi ez ziren falta izan aurtengo festetan, haurren krosa, patata tortilla lehiaketa, txapel jaurtiketa, mus txapelketa, erraldoiak eta musika besteak beste. Arrakasta handia izan zuen Gozategi taldearen kontzertuak. Urtetan herrian eman dirik eskaini gabea baitzen. Berritasun asko ere izan dira 2019ko egitarauan. Arratsaldeetan DJ Maireren eskutik "Atsalde On!" saioen bitartez Aurrerako terrazan giro ederrean aritu ziren he-

rritarrek dantzan. Ostegunean berriz, "Pijama gaua" antolatu zen. Ostiral goizean margolanak egiten ibili ziren txikienak herriko Alde Zaharrean. Eta larunbatean herritar dezente elkartu ziren Larraun-Lekunberri Kantuz kalejiran abestera. Horra hor aurtengo hainbat irudi! Eta gogoratu Aldazko eta Gaintzako sanmartinak bertan ditugula!



Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZA

634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA
- HARATEGIA -

PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

Allprox

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34



Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU bar

ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK

948504352

LAGUNDU MAILA
LAGUN

Mailopeko bazkidea
izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN s.l.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarrapun@gmail.com

Indar betez hasi dute ikasturtea Printzan

Printzan Lekunberriko jaiak giro ederrean ospatu zituzten. Eta festak bukatzearekin batera ohiko egitarau zabalari ekin diote, bereziki garrantzia hartuko duten liburutegi eta baratzearekin. Hona hemen festen argazki-kronika laburra eta liburutegi zein baratze lan-taldean adierazpenak!

Ikasturtea hasi da eta PRINTZAN espazio ezberdinei bere lekua emanez, hezten hazteko helburuarekin bi proposamen berri aurkeztu dituzte:

LIBURUTEGI SOZIALA

Kultura eta hezkuntzari leku bat emateko beharraren aurrean, liburutegi soziala martxan jarri dute. *"Zainduz, elkarlanaz, elkarbanatuz, heziz... norbere formakuntza garatzeko tresnak eskura dauzkagu. Hurbiltzeko aitzakia izan dadila jakin-mina, desira! Adin guztiei zabalik dago: etorri ikastera, irakurtzera, jolastera, eskolako lanak egitera, kontzentratzera, liburuak gomendatzera, edo kritikatzera... Elkarbanatu eta elkar hezi gaitzen.*

Osa dezagun katalogoa guztion artean. Partekatu nahi dituzun liburuak ekarri, herriaren espazio hau zurea ere bada, zurea egin eta jaso!"

Liburutegi Sozialaren behin-behinekoko ordutegia honakoa izanen da: Astelehen eta Asteazkenetan 17:00etatik 19:00etara.

BARATZE KOMUNITARIOA

"Larraungo etxeetan aspaldikoa da baratzean aritzeko ohitura. Baratzeak bertako eta kalitatezko produktuak eskuratzeko eta elkarrekin harremanetan hasteko aukera ematen digu, ama lurra zainduz".

Printzan baratze komunitarioa jarri dute martxan. Baratzean lurra iraultzen den moduan, baratze bera omen da iraultza. Beraz, baratzean aritzeko gogoz daudenak, edo ikasi nahi dutenak edo kalitatez jan nahi dutenak badute tokirik Printzako baratzean. Baita helduen esperientziak eta gazteen jakin-minak. Eta batez ere, badute tokia elkartasunerako, autogestiorako eta autokontsumorako espazio berriak irabazi behar di-



rela sinesten dutenek.

Urtean zehar hainbat lan egingen dituzte. Negua batez ere ikasteko aprobetxatuz: nola zaindu baratzea

produktu kimikorik gabe, nola egin gure haziak, nola aprobetxatu eta gorde barazkiak, etab. Udaberrian baratze lanak prestatu eta antolatu dute. Baratze honetan hurreko beraien zatia ere izango dute.

Animatu eta parte hartu Printzako baratze komunitarioan!!!

Bestalde, azarorako ere hainbat jarduera daude dagoeneko antolatuturik:

- Azaroak 15 (21:00): Afari soziala. Hilabetero, hirugarren ostiralean, giro oneko afaria.

- Azaroak 23 (18:30): Lan txikien tailerra. Elektrizitatearen oinarriak eta entxufeen instalazioa.

- Azaroak 29 (19:00): Formakuntza / eztabaida. Sistema kapitalistaren oinarriak eta langile borroka historian zehar.

Printzako kideekin harremanetan jartzeko: larraungoprintza@gmail.com



Lorea Mayayo eta Aner Ansorena izan dira saridunak!

Larraun Pilota Elkartek aurtengoan ere saski ederra zozketatu zuen Lekunberriko Pilarika Jaietan.

Inoiz baino beteago eta dotoreago egon zen Artxueta harategian jarrita. Bertako saltoki, enpresa eta ekoizleen laguntzarekin osatutako saskia Lorea Mayayori eta Aner Ansorenari egokitu zitzairen. Elkarrekin erdibana erosi baitzuten bi lagun hauek Larraunen pilota sustatzen jarraitzea helburu duen zozketako txarteltxoak. Zehazki 4087 zenbakidun txartela. Zorionak bikote!! Eta eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi!!

Eta zuk zein bizipen dituzu? Bidali iezaguzu trinketean bizitako bizipenik kuttunena mailope@labrit.net e-postara.

Azken etapa



Ttutturreko mendizaleek amaitutzat eman zuten Lekunberri-Lekunberri ibilbide sorta. Joan den urriaren 27an egin zuten azken etapa. Berezia izan zen Ipar Euskal Herriko lagunekin batera egon baitziren. Esterenzubitik Gatarrerantzera abiatu ziren eta igoyeraren ondotik Lekunberrirantz jaitsi ziren. Bertako udaletxean ongi etorria egin zieten, Ttutturreko ki-deei. Gero bazkari eder baten buel-tan elkartu ziren denak. Aurten gainera Nafarroako eta Iparraldeko Lekunberri izeneko bi herrien arteko senidetzearen XX. urteurrena bete da.

Trinketeak ehun urte bete ditu

Lekunberriko Jai Alai Pilotalekuaren ondoan dagoen trinketeak ehun urte betetzen ditu aurten eta azaroaren 16an hainbat ospakizun izanen dira. Ehun urte hauetan hainbat eta hainbat ekitaldi antolatu izan dira trinketean, pilota partidak, ekitaldi politikoak, herri-bazkariak, parrandak...

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 696 658 288
LEKUNBERRI

AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24

TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza

IORTIA EL INCA ESTETIKO HORTZ ESTETIKA
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



emozioen munduan

●● Lorea Zulet (Psikologoa)

Oinarrizko emozioak

Normalean min fisiko bat daukagunean gai gara esateko non daukagun min hori, hitz teknikokin ez bada ere, oinean bada, orkatilan, buruan... Baina emozioekin ez da, askotan, berdin gertatzen.

Txikitatik ez badigute erakusten emozioei izena ematen, gero zaila da nola sentitzen garen definitzea eta orduan da emozio horien adierazpen oker bat gertatu daitekeenean. Hasi gaitzean orduan emozioei izena eta funtzioa ematen.

Paul Ekman psikologo estatu batuarra izan zen lehena esaten sei zirela oinarrizko emozioak: alaitasuna, tristura, haserrea, nazka, beldurra eta sorpresa. Gaur, teoria horiek aldatu egin dira, eta lau izatera pasa dira oinarrizkoak: alaitasuna, haserrea, tristura eta beldurra. Oinarrizko emozio hauen adierazpena unibertsean da, jaiotzetik, mundu guztiko pertsonak, arpegi keinu berdinak ditugu emozioak adierazteko. Honek gure arteko komunikazioa eta erlazioa errazten du, entzunda daukagun hitz gabeko komunikazioari esker.

Hau gertatzen da emozioen funtzio ebolutiboengatik, izan ere, emozien oinarria espeziearen bizi-raupenean dago eta gure arbasoen beharretara moldatzen dira:

EMOZIOA	FUNTZIOA
• Alaitasuna	• Motibazioa, afiliazioa
• Nazka	• Errefusa
• Haserrea	• Autodefentsa
• Beldurra	• Babesa
• Sorpresa	• Esplorazioa
• Tristura	• Bertakotzea

Askotan entzun dugu emozio positibo eta emozio negatiboen banaketa, baina errealitatea da emozio orok daukala bere funtzioa. Tristura barne. Azken hau emozio zailenarikoa da gestionatzen ikasteko, bere errefusa eragiten duena. Baina ongi pentsatzen badugu tristura hori laguntza-eskatze bat bezala interpretatu daiteke. Honen funtzioa garbiago ikusteko *Inside out* pelikula gomendatzen dizuet. Marrazki bizidun pelikula bat da baina emozioen funtzioa oso garbi adierazten du guztientzat.

Esan bezala, horiek oinarrizkoak dira, eta zer dira orduan ezagutzen ditugun gainontzeko emozioak? Ba, oinarrizkoen konbinaketaren emaitza hain zuzen ere. Adibidez: frustrazioa, haserrea eta etsipenaren konbinazioa da.

Honez gain, emozioak ikasteko eta lantzeko hurrengo liburua gomendatzen dizuet: *Emoziotegia*. Hainbat hizkuntzatan argitaratuta dago (euskaraz, gazteleraz, katalanez, ingelesez...) eta etxean lantzeko oso aproposa da edozein adinetako pertsonekin.

Zure zalantza pertsonalak Lorearekin argitu nahi dituzu?

Jarri harremanetan:

l.zr.psicologia@gmail.com / 676 975 810.



Mubert



App-a irekitzean bi aukera edukiko ditugu: actions eta genres. Lehenengo aukeran sakatuz gero, musika ze egoeratan entzun behar dugun aukeratzeko aukerak emanez. Bestalde genres aukeran sakatuz gero, house, chill, techno, hip-hop, ambient, elektronik eta dubtechno generoetan nahi duguna aukeratzeko aukerak ditugu. Jaitzi nahi izanez gero, Android-eko Google Play edo Apple-en App Store aplikazio dendetan dago eskuragarri. Aplikazio hau doan da baina zenbait erreproduktzio egiteko ordaindu beharra dago.

Xanti Saigos

Mubert, musika auto-sortzaile eta amaiezina erreproduzitzen duen lehen streaming zerbitzua da. Hasi ereduak aukeratu eta adimen artifizialak sortutako algoritmo baten ondorioz, musika amaiezina sortzen joango da.

digitalko app bidali ikusi download

Baserritik plazara

Joan den urriaren 27an Araizko Zaporeak Elkartek hirugarren aldiz antolatutako azoka egin zen. Arribeko plaza, Araizko baserri eta etxeetan ekoizten diren produktuen erakusleihu izan zen.

Lesi Ansorenak berak diseinatu eta jositako jantziak atera zituen plazara, Amaralar Elkarteko kideek babarrun beltzak eraman zituzten, Intzako Antsonegoikoa baserritik erreximentak, gazta eta sagardoa atera zituzten. Lezaetako Ogia ekoizten dutenek ere ez zuten huts egin eta Itziar Egidazuk Larraunen Amaralarreko kideek landatutako gariarekin egindako ogia jarri zuen salgai. Ogi guztiak saldu zituen gainera! Nerea Zabalak bezala, plazara ateratako ogi eta magdalena gehienak ohartzerako kendu zizkioten eskuetatik.

Horiez gain beste hainbat postu ere izan ziren, labean erretako etxeko sagarrak, sagar zukuak, intxaurrak, babarrunak, errokillak, xaboi eta ukendu naturalak, patxarana...

“Bertako baserri eta etxeak goretsi nahi ditugu”

Araitz-Beteluko artisauek urtero bezala euren azken lanak eraman zituzten eta DBHko ikasleek ere ikas-bidaiarako diru-bilketa egiteko aprobetxatuz pastelak, magdalenak eta bestelakoak saldu zituzten.

Uztegiko Antsonea baserritik bertan ekoiztutako gazta mota ezberdinez gainera, menbrilloak eta

propolia saldu zituzten.

Salmenta postuak ez ezik tailer txikiak ere izan ziren. Interesatuek Peio Goikoetxearekin gazta egiten ikasi zuten han bertan eta bi gazta koxkor egin zituzten. Bestalde, Itziar Egidazurekin haur eta helduek taloak egin zituzten. Eta Arribeko Ane Zabalak mimoz zaintzen dituen zaldietako batekin txikienak bueltaka ibili zituen.

Eguerdian, Irurtzongo Orritz Iskidi taldeko ardi, artzain eta pertsonaia mitologikoak joan ziren Arribera. Eta ondoren, Joseba Urretabizkaiak eta Alvaro Bermejok kaleratutako *“Aralar, artzain eta jentilak”* liburuaren aurkezpena egin zen, bertako hainbat artzainen parte-hartzearekin.

Aurtengo beste berritasunetako bat sagar postre lehiaketa izan zen. Arrakasta handia izan zuen, partaide asko izan baitziren.





Azokaren ondotik egindako bazkari herrikoian 98 lagun elkartu ziren eta musika eta haur jolasekin giro ederrean amaitu zuten eguna.

Araizko Zaporeak elkartetik oso positiboki baloratu dute aurtengo azoka. Elkarateak azoka honen bitartez, bertan ditugun produktu osasungarriak, lurrarekin eta animaliekin errespetuan ekoiztuak, bertan saldu eta kontsumitzeko ohitura bultzatu nahi du. *“Ekonomia zirkularra eta elikadura burujabetzari indarra eman eta bertako baserri eta etxeak goreski nahi ditugu; bertako jakinduria eta aberastasuna plazaratu”*. Saltzeko ez ezik horretarako ere balio baitu azokak, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harremanak estutzeko, ekoizleek kontsumitzaileen beharrak eta kontsumitzaileek bertako produktuen ekoizpen-motak ezagutzuz.

Bestalde, urriaren 24rako aurreikusia zegoen Nafarroako Unibertsitate Publikoak Araitzen egindako ikerketa lanaren emaitzen aurkezpena atzeratu egin den arren, aurki izanzen dugu horren berri.

“Ekonomia zirkularra eta elikadura burujabetzari indarra eman”



ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

tanatorios
IRACHE
Betidanik
ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

ETXEPARE SARIA 2020 HAURRENTZAKO ALBUMAK SORTZEKO

- Haurrei zuzenduriko album ilustratuak aurkeztu ahal izanen dira sari honetara. Album ilustratu bezala ulertzen dira testua eta irudia elkarren osagarri dituzten lanak.
- Lanak euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izanen dira. Ez da onartuko beste inondik moldatutako lanik, ezta aurretik saririk jaso duenik ere.
- Lehiaketan honela parte hartu daiteke: bakarka edo idazle eta ilustratzaileek osatutako taldean. Egileek nahi beste lan aurkez ditzakete.
- Formatua librea da, baina lanak ez dira 20 cm x 21cm baino txikiagoak izanen, eta gutxienez 15 orrialde bikoitz izanen dituzte (bakarrik kontuan hartuko dira barneko orrialdeak). Testuek ez dituzte 4.000 karaktere baino gehiago edukiko (zuriuneak barne).
- Sari hau azken lau deialdietako batean jaso duten idazleen edo ilustratzaileen lanak alde batera utziko dira, nahiz eta arestian aipatutako baldintzak bete.
- Lehiaketan parte hartzen duten egileek albumaren maketa aurkeztu beharko dute, hau da, azken bertsioa inprimatuta, bukatutako albumean agertuko liratekeen testu zein ilustrazioekin. Nahikoa da maketa modu xume batez jostarekin. Horretaz gain, maketaren kopia bat bidali beharko dute: pdf formatuan, lan osoa fitxategi bakarrean. Kopia pendrive batean aurkeztuko dute (aholkatzen da fitxategiek ez izatea 10 mega baino gehiago). Albumaren testua ere aurkeztu beharko dute, Word formatuan (pendrivean sartuta).
- Lanak izengoitiaz izenpeturik egongo dira. Lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztuko da, kanpoko aldean lanaren titulua eta egilearen goitizena izango dituen eta barruan egilea edo egileen datuak: izen-abizenak, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa, NANaren edota pasaportearen fotokopia eta egilearen aipamen bio-bibliografikoa.
- Lanak helbide honetara bidaliko dira: ETXEPARE SARIA, Leitzako Udala-Euskara Zerbitzua, Elbarren 1, 31880 Leitza (Nafarroa).
- Originalak aurkezteko epea 2020ko maiatzaren 17an, ostiralean, itxiko da. Epaimahaiak erabakia hartzeko azken eguna 2020ko ekainaren 28a izanen da.
- Sari bakarra emango da, 5.000 eurokoa, egile eskubideen aurrerapen moduan. Zergen atxikipena indarrean dagoen legediari jarraiki egingen da.
- Saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du euskaraz, eta argitalpenean Etxepare sariaren aipamena egingen da.





SALGAI

Ura berotzeko gasoliozko galdara salgai, 800 litroko deposituarekin. BAXIRO-CA-MOD-GAVINA 20 GTI SP. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646870837 (Bixente).

Pisua salgai Sarrigurenen. 90m2-ko etxebizitza, bi garaje eta trastelekua. Harremanetarako: 676 090 928.

EROSTEKO

Land Rover Defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.



TAXILON

Lontxo Otamendi Artola

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA ARLOETAKO HORNIGAIK BURINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

Gaiatzako Jaiak

AZAROAK 8, OSTIRALA

20:00 Poteo herrikoa
21:00 Martintxoren Jaitsiera
00:30 Dj Txoko
Ondoren, musika goizaldera arte

AZAROAK 9, LARUNBATA

17:30 Merendola. Ondoren, Ume Jolasak
19:00 Harrijasotzaileak: Iñigo Eizagirre
"Ostokaitz", Mikel Lopetegi (Urria) eta
Manex Abarzuza
21:00 Afari autogestionatua
00:30 Gabezin Taldea
Ondoren, musika goizaldera arte

AZAROAK 10, IGANDEA

12:30 Meza Nagusia
Ondoren, hamaiketakoa eta bertsolariak:
Bixente Gorostidi eta Unai Muñoa

AZAROAK 11, ASTELEHENA

San Martin Eguna

08:00 Suziriak
12:00 Meza Nagusia
Ondoren, hamaiketakoa
14:00 Herri bazkaria

Aldazko Pestak

AZAROAK 8, OSTIRALA

12:00 Suziria eta ezkile jotzea
13:00 Patata tortilla txapelketa
Ondoren, bazkaria elkartean
17:00 Herriko mus txapelketa
22:00 Afaria elkartean
00:30 Gaupasa DJ Oixanirekin

AZAROAK 9, LARUNBATA

11:30 Erronda etxez etxe Iraunkorrek txarangarekin
17:00 Puzgarriak eta barredora Itturgi frontoian
19:00 Txokolate jatea eta Maksim Zestau magoa,
Herriko Etxean
20:30 Sagardo Festa: txistorra, urdaie eta tortilla;
musikaz alaitua
00:30 Gaupasa, DJ Oixani. Eurreee!

AZAROAK 10, IGANDEA

09:30 Dianak, Larraungo txistulariekin
11:00 Tirikitrauki dantza taldea
13:00 Nafarroako II. Mailako Aizkolari Txapelketaren
Finala, Itturgi frontoian
17:30 Larraungo Eskolako Pilota Partiduak, neskak
palaz
19:00 Bertsolariak: Julio Soto eta Nerea Ibarzabal.
20:00 Pintxo pote, elkarteko tabernan

AZAROAK 11, ASTELEHENA

San Martin Deunaren Eguna

11:00 Meza Nagusia
11:30 Herriko frontenis txapelketa mistoa
13:00 Toka txapelketa
14:30 Herri bazkaria. Ondoren, dantzaldia
Miel Angel Donamarikoa.